

noaua

Hasi da txotx garaia

“Hotzak akabatzen”
BTT lasterketan
izen-ematea zabalik

Ostiral honetan,
danbor hotsak
Udarregi ikastolan



Paulino Ibargoien

**Euskal Herria dantzan
ipini duen telebista izarra**

Estetica
Lourdes Larrañaga

3x2

- FOTODEPILAZIOAN
- ERDI-IRAUNKOR MANIKURAN
- BETILEEN TINDATZE ETA PERMANENTEAN

3x2

Tel. 943 362 887
Mov. 619 060 685
lourdes@esteticalourdes.es
www.esteticalourdes.es

URDAIRA

Sagardotegia

Abenduak 21 **BARRIKOTEA**
20.00h Urdairan
astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91

Sarreraren salmenta

bastero KULTURGUNEA

DIVENIRE
CIRCLE OF TRUST & LOGELA
Hip-hop eta break dance ikuskizuna

AZKEN 30 MINUTUTAN ,GAZTE ORDU!!!
SARRERAK 3€ (26 URTE BEHERAKOENTZATI)

URTARRILAK 17, ostirala
21:30 Andoaingo auditorioan
<http://basterokulturgunea.blogspot.com.es>

Info: 943.303.540

OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...
IKUSI FUTBOL
PARTIDUAK
GUREKIN!**

egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Albisteak iruditan

Patxi Seguroaren irribarre askea

Bost ordu inguruko itzulera bidaiaren ostean, iragan urtarriaren 9an, goizaldean heldu zen Patxi Seguro, senide eta lagunekin batera Usurbila, bezperan, baldintzapean aske geratu ostean. Azken hiru hilabeteak Soto del Realen eman ostean, urtarriaren 7an Estremarara espetxez aldatu eta egunbetera.

Aginagarra, 2014. urte hasiera honetan geratu da baldintzapean aske. Seguroak ordea betea zuen espetxe zigoro osoa, 2010. urte amaieratik. Aske geratzear zegoenean ordea, espainiar estatuak Patxi estraditatzeko eskaera egin zuen. Autunen konfinatu zuten orduan, bere sorterritik 850 kilometrotara. Eta bertan izan dute, bi urte eta erdiz. Autunetik atera ezinik, eta egunero, bere burua bitan jendarmerian



Eguberriak amaitu berritan utzi dute baldintzapeko askatasunean.

Argazkia: usurbileginez.com

aurkeztera behartua egon da. Tarte horretan, espainiar estatuak Patxi estraditatzeko bi eskaera egin zituen. Horren aurrean aurkezturiko he-

giteak ez zituzten aintzakotzat hartu.

Frantziako Estatu Kontseiluak Patxi Seguroa herritarraren estradizio

eskaeraren gauzatzea aztertu zuen joan den ekainaren 24an. Eta handik bi astera, uztaila hasieran jakinenez, estradizioa gauzatzea onartu zen. Une horretatik aurrera, erabakion aurka mobilizatu ziren herritarrak, elkarretaratze eta agerraldi baten bidez. Patxi ordea, Autunen izan zuten beste hiru hilabetez, pasaden irailaren 27an atxilotu, estraditatu eta Madrilgo Soto del Realen espetxeratu zuten arte.

Estradizioaren harira, iraila amaieran hainbat mobilizazio burutu ziren herrian: elkarretaratzeak, giza-katea, edota mozio bat ere onartu zuen Udalak ezohiko osoko bilkura batean. Aipatu moduan, urtarriaren 7ra arte Soto del Realen izan zuten Patxi, Estremarara lekuz aldatu zuten arte. Espetxez aldatu eta egun batera, baldintzapean aske utzi zuten Seguroa. Etxean da jada.

Laburrean

Eguberrien ondoren, Inauterietan pentsatzen hasteko garaia da

Martxoaren 1ean ospatuko da Inauteri Festa. Zertaz mozorrotu nahi zenuke? Ideiaren bat baduzu, bota lasai. Bidali zuen proposamenak elkar-tea@noaua.com helbidera, edota 943 360 321 telefonora deitu edo egoitzara ekarri.

"Gure esku dago" taldea jarri da martxan, larunbatean bilera irekia

Erabakitze eskubidearen aldeko indarra herrian txertatzeko asmoarekin hasi dira lanean. Larunbat honetan bilera egingo dute, urtarriak 18, goizeko 10:00etan Potxoenean. "Herritarrak taldean parte hartzea gonbidatu, indarrak bikoizteko".

Usurbilgo Caritas taldeak Artzabalgo Zahar Egoitzari esker onez

Gabonetan, Zahar Etxearen ekimenez, jaiotza ipini da Artzabalen. Asmoa, jendearen borondatea biltzea zen eta hori Caritasi ematea. Ohar honen bidez, Caritasek eskerrak eman nahi dizkie Artzabali eta diruz lagundu duten guztiei.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaua.com // www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,

publizitatea@noaua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte, Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udaregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

Lezio bat dugu ikasteko

Kuriosoa da denboraz dugun pertzeptzioa. Urtea amaitzen denean konturatzaren gara, dagoeneko, urtebete pasa dela, eta 365 egun lehenago egindako autopromesa guztiak, edo ia gehienak, ez ditugula bete. Urtea hasi berria denean, berriz, halako nagikeria ematen du... Urte guztia aurretik; 365 egun aurretik. Eta, nik behintzat, oliorik gabeko makina bezala, egunek aurrera nekez egiten dutenaren sentsazioa izaten dut.

Baina pertzeptzioak pertzeptzio, denborak erritmo berdinean egiten du aurrera. Erritmo berdinean zahartzen gara. Erritmo berdinean datoz albiste onak,

eta txarrak. Eta maiz, egun berean, edo tarte oso txikian, nahastentzen dira batzuk eta besteak.

Hala, gozoak izan dira Jokin Errasti, Ramon Uribe eta Patxi Seguiolaren etxeratzeak. Eta, kasu honetan, etxeok oraindik Uriberen askatasunaren aurrean zeudela, hala iritsi da Jontxuren agurra. Egundak batetik bestera. Hala joan ziztaigun. Aurreikuspen guztiak betez, jende oldea batu zen haren azken agurrean.

Heriotza beti da triste, beti da mina, beti da hutsune. Batez ere, etxeok edo lagunak direnean joaten direnak. Baina salbuespenek legea lege bihurtzen duten bezala, Jontxurenak, etxe-

okak ez ezik, herri oso bat hunkitu du, eta hori ez du edonork lortzen. Bertsoak, olerkiak, kantua, argazkiak... Han hemen ugaldutza ziren sare sozialetan. Jontxuren agurra ez zuen gutxiago merezi.

Baina, egia esate aldera, Jontxurentzat ez zegoen ezezagunik, urrutikorik, herrian. Guztiok partekatu dugu gure denboraren zati bat, gutxiago edo gehiago, berarekin. Eta, salbuespenik gabe, Jontxu beti zegoen irribartsu, beti alai. Eta hori ere, ez du edonork lortzen.

Egunen joan etorri etengabean nahiko nuke nik ere Jontxuk zeukan alaitasunaren dosi laurdena mantendu. Eta pentsatzen

jartzen bazarete, haren irribarra utzi zezakeen leziorik ederrera da. Gerta ala gerta, irribarre egitearena.

Baina bizitzak, denborak, munduak, aurrera darrai. Eta ez da lan erraza egunen joan etorri ustez motel horretan kezkatzen gaituzten gauzetatik deskonektatzea. Buruari bueltak ematen tematu beharrean, tarte behintzat, irribarre egitea. Jontxu eredu izan zen, horretan ere, eta nago, hura gogoratze-ko modurik onena, irribarre batekin egitea dela. Eta orain mingarria izan arren, denborarekin irribarre goxoa marraztuko zaigu aurpegian Jontxurekin gogoratzen garen bakoitzean.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregerai | Luis Aranalde | **Maialen Unanue** | Joxe Piñas | Imanol Ubeda | Nerea Zinkunegi

Logotipo lehiaketa antolatu du Zumartek

Soinurbil Musika Zikloaren 10. edizioa egingo da aurten. Hori dela eta, Zumarte Musika Eskolak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean Soinurbilen logotipoa sortzeko logo lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa honen xedea Soinurbilen irudia izango duen sormenezko diseinua hautatzea da.

Parte hartzaileak

Lehiaketa publikoa eta irekia izango da. Lana originala eta argitaratu gabea izango da, beste lehiaketetan parte hartu gabea, eta ez da izango

beste lan batzuen kopia, ez guztiz, ez zati batean.

Gaia

Logoaren gaia "Soinurbil" izanik, hiru ardatz bilduko ditu: Usurbil, musika eta hurbiltasuna.

Lanen ezaugarri teknikoak

Logoaren diseinua honela aurkeztu beharko da:

a) Formatua:

1.-Paperean: 5 x5zm eta DINA4 ko tamainetan, bai kolorez, bai zuribeltzean aurkeztu beharko da.

2-Euskarri digitalean: CD edo pen-drive batean, bai kolorez, bai zuribeltzean aurkeztu beharko da. Ilustrator edo antzeko beste programa bat erabili ahal izango da; betiere, azken hau edozein tamainetara egokitu badaiteke kalitatea galdu gabe. b) Diseinuaren zergatiaren azalpen txiki batekin aurkeztuko da logotipoa, gehienez orri batekoa. c) Edozein komunikazio euskarritarra egokitu ahal izango da logotipoa, hau da, papera, gutun azala, txartela, kartela, helbide elektronikoa, web orria, etab.

Saria

Epaiahaiak sari bakarra banatuko du, 400 eurokoa.

Epea

Lanak aurkezteko epea 2014ko urtarrilaren 2an hasi eta urtarrilaren 31n amaituko da, biak barne.

Non aurkeztu lanak

Udaletxean edo postaz helbide honetara igorritz: Usurbilgo Udala Kultura Saila
Jose Martin Sagardia plaza z.g.
20170 Usurbil

LOGOPEDA

USURBIL 635 70 13 74

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Paulinoren sagardo tragoarekin hasi dute txotx denboraldia Hernanin



ETB1-eko 'Kontrako eztarria' saioko aurkezleek zabaldu dute txotx garai berria.

Paulino Ibargoien usurbildarrak izan zuen igandean Hernanin txotx denboraldia inauguratzeko ohorea, Euskal Telebistan lankide dituen Kontrako Eztarria saiokoekin batera. Asier Olaizolak ireki zuen txotxa, eta sagardoa zerbitzatu eta edalontziak gora jasota, "Hau da Hernani-

ko sagardo berriya!" esanez dastatu zuten 2014ko lehen sagardo tragoa Paulinok, Anjel Alkainek, Xabier Eguzkitzek, Iker Galartzak eta Jon Plazaolak. Umoretsu joan zen igande eguerdiko ekitaldia, txisterik kontatzeko tartea ere hartu zuten eta, Paulinok eta Alkainek.

Bilboko manifestaziora lau autobus abiatu ziren

Gozian bat, eta arratsaldean beste hiru autobus abiatu ziren Usurbildik, horietako bat bi pisukoa, EH Bildu, EAJ-PNV, Geroa Bai, ELA eta LAB-ek, "Giza eskubideak. Bakea. Konponbidea" lemapean deitu zuten manifestaziora. 130.000 lagun bildu zituen mobilizazioak. Manifestazioa hasi aurretik ateratako argazkia da ondokoa. Bilbo erdiguneko Autonomia kalea duzue, jendez beteta. Guztia, bezperan Espainiako Auzitegi Nazionalako Eloy Velasco epaileak Tantz Tantz urtarrilaren 11rako deituriko ekimen guztiak debekatu ostean izan zen. Euskal Herriko gehiengo sin-



dikal eta politikoak erantzun bateratu bat eman zion debekuari, eta erantzun horren isla izan zen, larunbat iluntzean Bilboko kaleetan bizi izandakoa.

Zubietako esperientzia aztergai, euskara eta lurraldea lotuko dituen jardunaldietan

Ostegun eta ostiral honetarako, urtarrilaren 16 eta 17rako antolatutako jardunaldiak Donostian, UEUK, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kontseiluak, eta Usurbilgo Udala kide duen UEMAK, EHUren babesarekin. "Lurraldea eta Hizkuntza, Hizkuntza eta Lurraldea" izenburudun jardunaldiak, Donostiako campusean burutuko dira, Carlos Santamaria zentroan. Doan eman ahal izango da izena, www.ueu.org atarian. Web orrialde berean, jaso ahalko duzue egitarauaren berri ere. Argibide gehiago: 943 82 14 26 (Irati) edo epostaz i.iciar@ueu.org helbidetan.

Bihurri ludotekan izena emateko epea ireki da

Ludotekako kuota ordaintzeko garaia iritsi da. Epea otsailaren 15ean amaituko da. Urteko kuota 15 eurokoa da, eta kontu zenbakia Kutxa 2095 5069 06 1063903578. "Kontzeptuan mesedez izen-abizenak jarri eta ziurtagiria ludotekara eraman behar da. Norbaitek apuntatu nahi badu, 30 euroko ingresoa egin eta ziurtagiriarekin ludotekara azaldu dadila ostegunetan 16:45etik 17:45era".

Ludotekan jarraitu behar ez duenak mesedez giltza entregatu dezala, hori ere eskatu dute Bihurriko kideek. "Norbaitek dudaren bat badu edo informazio bila badabil azaldu lasai ostegunetan ludotekara edo idatzi bihurri ludoteka@gmail.com helbidera".

Matxura larria

Egunotan itxita dago Bihurri ludoteka. Matxura larri bat egon da eta lehenbailehen konpontzen saiatuko dira. Eragozpenak barkatzeko eskatu dute Bihurritik.

ARTZABAL
Baserria - Jatetxea
Puntapax 8, Usurbil
943 36 91 39
www.artzabaljatetxea.com

EGUNEKO MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
TOSTAK
MENU BEREZIAK

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak · beira bikoitza
- segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Ion Astiazaran, Iruin sagardotegia

Aurtengoa “sagardo ona, dudarik gabe”

Zer moduzko sagardoa aurtent?

Zazpi zortzi urte guk ezagutzen ditugun sagar motekin esperimentatzen daramagu. Izango dira lau urte, maila bat lortu genuela. Guri gustatzen zaigun sagardo mota bat lortu dugu egitea. Aurtent nahiko neurri berean ditugu sagardo guztiak. Sagardo ona probatuko dute. Hiruzpalau sagardo mota desberdin ditugu, 12 kupeletan, denetarik; urtero bezala, gozoagoak ditugu, mikatzagoak. Denetarik baina sagardo ona dudarik gabe. Jendeak ezagutzen gaitu, etortzen denak badakijada zer aurkituko duen hemen.

Zer bezero aurreikuspen duzue?

Espero dugu pixka bat berriz ere 25-40 urte arteko bezero gehiago erakartzea, hori da gure erronka. Talde handiak hartzen ditugu, baina guk lan gehiago egiten dugu, 4-15 laguneko taldeekin. 12-14 lagunentzako



Irekiera: urtarriletik maiatzaren 18 ingurura arte.

mahaiaik ditugu eta jendea oso gustura egoten da. Oso ondo kokatuak gauden gainera. Urbileko errotondatik gertu, autobidetik baita... Tolosa, Orio, Zarautz... jende asko izaten dugu.

Zer berezitasun ditu Iruinen eskaintzen duzuen zerbitzuak?

Berrikuntzak egiten joan gara: lurra aldatu genuen, sabaia... Sagardotegi polita dugu, eta hala ere ez gara ateratzen tradizionaltasun horretatik. Jendeak gusturago jateko aukera hori ematen dugu. Gazteentzako bakaila-ooa piperrekin apur bat astuna egiten zela ikusi genuen eta horregatik era-

baki genuen, bakailaooa ajoarriero era-rra zerbitzatzea. Bestela ohiko sagardotegiko menua mantentzen dugu.

Gonbidatu gaitzazue zuen sagardotegira.

Hona datorrenak badaki zer duen; haragi ona, kalitateko sagardoa, eta etxeko jendearen tratua, Astiazaran familia hemen gaude. Denek ezagutzen gaituzte. Hemen gaude zuen zain. Urtero moduan, espero dugu denon egoera hobetzea, hartara guk lan gehiago izango dugu, bezeroek ere bai eta denok poztasun handiagoa.

Astiazaran sagardotegia

Helbidea: Petritza bidea 12, Zubieta. Telefono zenbakia: 943 361 229. E-posta: ion@iruinsagardotegia.com Web orria: iruinsagardotegia.com Egunero irekita, 13:30-15:30 eta 20:00-22:30, igande gauetan itxita.

Aitor Lizaso, Arratzain sagardotegia

“Gorputz handiko sagarrarekin egina”

Zer moduzko sagardoa duzue aurtent?

Aurtent oso sagar gutxi egon da. Asturiastik ekarri digu, garesti. Guretzako oso zaila da sagarra aurkitzea, ekologikoa behar baitu, sagar garbia, naturala. Duela hiru urte egin genuen sagardo ekologikoaren aldeko apustua, eta horrekin jarraitzen dugu. Heldutasun puntu egokian aurkitu dugu sagarra, oso gustura geratu gara. Gorputz handikoa da, lasto koloredu-na, oso azidoa, oso sagar ona. Gustatzen zaigu, baina berandu egin dugu, azaroan. Horregatik pixka bat gozoa dago oraindik, otsaila aldera egoki egongo da.

Zer bezero aurreikuspen duzue?

Aurreikuspena egitea oso zaila da. Langabezia dela eta, iazkoaren antzekoa izango delakoan gaude. Mantenduko balitz gu oso gustura. Ekoiz-



Urte osoan zabalik. Ostiral iluntzetan, larunbat egun osoz eta igande eguerditan.

pen aldetik ez dugu handitu, berdin mantendu dugu. Askok dira sagardo ekologikoaren eraginez datozenak, janari edo edari osasuntsuak dastatzera. Gehienak bertakoak, gipuzkoarrak. Batzuetan autobusez etortzen dira, Iruñea edo Bilbotik. Baina gehiagok dira familiak, koadrila txikiak, giro

lasaia eskaintzen baitugu.

Zer berezitasun ditu Arratzainen eskaintzen duzuen zerbitzuak?

Bi berezitasun; ekologikoa dela, bai sagarra eta bai sagardoa. Eta gero, asteburuetan irekitzen dugulako, askok baliatzen duten beste zerbi-

tzu nagusi bat dugu; logelak. Bezeroek nekazalturismoa eta sagardotegia erreserbatzen dute. Horrez gain, jendeak sagastia ikus dezake, sagardoa nola ekoizten dugun. Hau asko gustatzen zaie katalanei bereziki, ekologiko munduan geroz eta gehiago murgilduak baitaude.

Gonbidatu zuen sagardotegira...

Jendeak gustatzen zaiona bilatu behar du sagardotegi batean. Guk edari ekologikoa eskaintzen dugu, ziurtatua, nahi izanez gero lo egiteko aukera baita, eta giro lasaia.

Arratzain sagardotegia

Helbidea: Arratzain baserria, 22. Telefono zenbakia: 943 366 663. info@agroturismoarratzain.com Web orria: agroturismoarratzain.com. Zerbitzua: sagardo ekologikodun sagardotegia eta nekazalturismoa.

Joxean Lazkano, Aialde-Berri sagardotegia

“Zapore aldetik, sagardo polita dugu aurten”

Zer moduzko sagardoa aurten?

Gehienbat hemengo sagarrarekin egini-ko sagardoa dugu. Baina aurten nahikoa ez eta zerbait Bretainia ingururitik ekarri dugu. Ez da iaz bezala gorputz handiko sagardoa, baina zapore aldetik sagardo polita dugula iruditzen zait. Eta gainerakoan, naturala, ezer erantsi gabe egiten den sagardoa, urtero moduan. Sagardo suabe antzera, gazia baino geza, kolore gehixeagorekin.

Zer bezero aurreikuspen duzue?

Gure kezka da, ia behin edo behin errekueratuko ote den aste egunetako bezeroa. Gurean 100 bat lagun sartzen dira, eta iaz asteburuetan nahiko itxuraz ibili ginen, ondo. Aurten ere esperantza hori dugu. Nahiago dugu betiko bezeroa, herri ingurukoa, Lasarte edo Oriu, Zarautz aldeko dezente etortzen zaizkigu. Horiekin ondo mol-



Irekiera, urtarrileko bigarren astetik apirila bukaera edo maiatza aldera.

datzen gara eta horiek mantentzeko ideiarekin gaude. Aurten ere ez dugu joko talde handiak hartzera; talde txikiak, koadrila kokorak, familiak... Hori mantenduz gero, gustura.

Zer berezitasun ditu Aialde-Berri eskaintzen duzuen zerbitzuak?

Janaria mimatzen saiatzen gara. Afalostean kafe eta kopa zerbitzatzen dugu. Famili arteko jendea garenez, bezeroak ahalik eta egokien, goxoen, alaien tratatzen ahalegintzen gara, jendea lasai eta gustura egon dadin. Bezero gehienak izenez ezagutzen ditugu eta horrek asko esan nahi du guretzat.

Gonbidatu bezeroak zuenera...

Gu beti bezala herritik, trenetik gertutasun hori dugu. Eskaintzen duguna gure ikuspegitik ondo dago kobratzen dugunarekin. Beti saiatzen gara jendea esaten, aurrez deitu dezate- la. Lokal txikia dugu, eta zerbait garaitan atera etorri eta ezezkia esatea gogorra egiten zaigu. Badaezpada deitu aurrez, hori da gure mezua.

Eta bestalde, txotx garaian sagardo zale direnak urte osoan zehar sagardo zale izatea nahi nuke. Sagardo berriz mahaiko edaria izatea.

Aialde Berri sagardotegia

Helbidea: Aialde Berri 37, Santuenea. Telefono zenbakia: 943 365 031. Orduetgia: Astelehenetik ostiralera, 20:00etatik aurrera. Larunbatetan, 13:30etatik eta 20:00etatik aurrera. Igandetan, 13:30etatik aurrera, gaue-tan itxita.

Mikel Errasti, Aginaga sagardotegia

“Sagardo ona dugu, gustura edateko horietakoa”

Zer moduzko sagardoa aurten?

Aurten sagardo ona dugu, gorputz handikoa, usain eta zapore garbiarekin eta freskoa, gustura edateko horietakoa.

Zer bezero aurreikuspen duzue?

Gu baikor gaude eta pasa den urtea hainbestekoa baldin bada aurtengoa, ez gara kexatuko.

Gurean, bezero mota ezberdin asko ditugu. Bertako jendea, sagardotegiko garaian sagardoa probatzera etortzeko ohitura duena, inguruko probintzietatik taldean egun pasa datorena, urte osoan etortzen diren bezeroak... Pasa den urtetik, Hotela ireki genuenetik, asteburu pasa etortzen direnak ere badira, Txotx garaia aprobetxatuz. Abantaila bat ere badugu, Donostia Zumaia lineako autobusak, guretik 50 metrotara du gurekua eta jendeak ez du arduratu behar



Urte osoan irekita, astelehenak itxita. Eguerdian, 13:30ean, iluntzean 20:00etan.

kotxea hartzeaz.

Zer berezitasun ditu eskaintzen duzuen zerbitzuak?

Gure berzitasuna, sagardotegiko menua da: bakailau tortila, bakailaua piper berdeekin eta idi txuleta entsaladarekin. Postre ardi gazta, sagar-

dultzea (guk geuk egina, Agiñako errege sagarrekin) eta intxaurrek. Honetaz gain, karta zabal bat ere eskaintzen dugu, euskal sukaldaritza tradizionalean oinarrituta. Enkarguz, arkumea, txerrikumea... ere prestatzen ditugu. Lehengo urtean hasita, haragiaren kalitatearekiko egin dugu apus-

tu, eta jendeak nabaritu du. Izugarria dago! Ospakizun berezietarako jangela ere eskaintzen dugu, ezkontzak ematen ditugu...

Gonbidatu zuen sagardotegira...

Gustura hartuko zaituztegu. Etorri eta dastatu jangelan ditugun 7 kupeletako sagardo ezberdinak. Eta oso sagardozale bazarete, gure upategirako bidea ere irekiko dizuegu! Eskatu besterik ez duzue! Jateko goxoa ere izango duzue platerean!!

Aginaga sagardotegia

Helbidea: Aginaga auzoa. 943 36 67 10 // 943 37 06 68. info@aginagasagardotegia.com aginagasagardotegia.com Zerbitzuak: Sagardotegiko menua, urte osoan sagardoa txotxetik, kartara jateko aukera. Ospakizunetarako menu bereziak, ezkontzak... Lotarako lekua; Hotela**.

Napo Lertxundi, Saizar sagardotegia

“Sagardo orekatu, freskagarri eta arina”

Zer moduzko sagardoa duzue aurten?

Aurten dastatzera emango dugun sagardoa, hori kolorekoa izango da, tonu berdeekin. Uzta honen hartizte azkarak ahoratzeko lehorra den produktua ekarri du, txinparta finduna, eta ahoan, fruitu zuridun sentazioa ematen duena. Saizarren dastatzeko zain duzue, sagardo orekatu, freskagarri eta arina.

Zer bezero aurreikuspen duzue?

Astelehenetik ostiralera, denboraldi berriko sagardoaz gozatu eta dastatzera datorren publikoa espero dugu eta asteburuetan, larunbatean eta igande eguerdian bereziki, sagardotegiko planarekin datozen familiak, edota dezente lehena-gotik sagardotegia eta nekazaltu-



Urtarrilaren 16tik aurrera hasiko da txotx garaia.

rismoren bat erreserbatuta, beste probintzietatik datozen familia eta koadrilak.

Zer berezitasun ditu Saizarren eskaintzen duzun zerbitzuak?

Bezero mota guztiei egokituriko

menu eskaintza prestatu dugu prezio ezberdinekin. Gainera, sagardotegi erakargarria dugu Saizar, instalakuntzen handitasunagatik, eta iaz egin genuen irudi berritzeagatik.

Gonbidatu bezeroak zuenera...

Etorri familia edo lagunekin eta gozatu upategi handi batez, eta otordu eder batez, prezio arrazional baten truke.

Saizar sagardotegia

Helbidea: Kalezar, 39.

Telefono zenbakia: 943 37 39 95.

Web orria: www.sidrassaizar.com

E-posta: sidreria@sidrassaizar.com

Irekiera: urtarrilaren 16tik aurrera, egunero eguerdi eta gau partean, igande gauean eta astelehen eguerdian izan ezik.

Patxi Azkonobieta, Urdaira sagardotegia

“Sagardo onak daude aurten”

Zer moduzko sagardoa duzue aurten?

Aurten sagardoak iaz baino azkarra-goak, meheagoak izango dira. Sagardo onak daude. Iazko gorputzik ez dute izango ordea, iazko berdintasunik ezta, kupel batetik bestera desberdintasun gehixeago iaz baino. Eta hainbeste usain zaporea ez dute izango. Aurten sagarra hala egokitu da. Halere, gustura nago dauden sagardoekin.

Zer bezero aurreikuspen duzue?

Krisi egoera honekin, ez dakigu ze bezero mugimendu izango dugun. Aurreko urteetan gazteri jendea galdu egin da. Denboraldi hau ere ildo beretik joango delakoan nago. Bezero gehienak ingurutik datozkigu; Zarautz, Donostia, Lasarte, Usurbil aldetik. Koadrila txikiak gehienbat.



Urtarrilaren 7tik maiatzaren 4ra irekia izango da txotx garaia.

Oinez datozen mendizaleak baita. Hiru bat asteko tartea izaten dugu, kanpotik etortzen dela jendea, Iruña, Gasteiz, Bizkaia aldetik, Iparral-

deko batzuk ere bai. Koadrila handiak kanpotik etortzen dira.

Zer berezitasun ditu Urdairan

eskaintzen duzun zerbitzuak?

Berezitasunetako bat kokagunea dugu. Udaberrian dugun tokia berezia da. Udaberrian ingurua zoragarria izaten dugu. Horrez gain, mariskoa jartzen dugu enkarguz sagardotegian.

Gonbidatu bezeroak zuenera...

Aprobetxatu dezala garaia eta sagardo berria probatzera etor daitezela, ia denen gustukoa den. Maiatzera arte hemen izango gara.

Urdaira sagardotegia

Helbidea: Urdaira baserria, Aginaga.

Telefono zenbakia: 943 372 691.

Irekiera: urtarrilaren 7tik maiatzaren 4ra. Egunero afariak, eta jai guztietan bazkariak baita. Igande gauak eta astelehenak itxia.

Batukada feminista osatzeko gonbita

Emakumeei zuzenduriko doako ahalduzko ikastaro berri bat antolatu du Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak; "batukada feminista". Ikastaroa urtarrilaren 25ean martxan jarri asmo dute. Izen emateko epea irekita dago. Hasiera batean bost saio izango dira, bi aste-an behin, larunbat goizeko 11:00etatik 13:00etara, Zumarte Musika Eskolan. Musika instrumentuak antolatzailerik ez dituzte. Proba moduko ikastaroa izango da, baina taldeak jarraitzeko gogoia izango balu, saio gehiago antolatu litezke.

Esperientzia dutenen esanetan, ikastaro aberasgarria dela irizten diote ondo pasatzen baita, eta segurtasunean edota emakumeen arteko hartu emanetan ere asko irabazten baita. Usurbilgo emakumeak parte hartzerantz animatzen dituzte. Doan eman daiteke izena 943 377 110 zenbakian edo parekidetasuna@usurbil.net helbidean. Ikastaroa gidatuko duen irakasleetako batek, Ainara Sarasketa Alberdik dakartzan lerroetan, ekimen berri honen zehaztasun gehiago.

Batukada feministak zer berezitasun ditu?

Ainara Sarasketa Alberdi. Emakume taldeekin lanketa bat egiten saiatzen gara, talde lana, batukadaren erritmoak ezagutzen. Baina batik bat, bai protesta guneetan, bai festetan edo bai edozein kalejiretan, musika erabiliz plaza okupatzea ahalbidertu nahi dugu. Normalean emakumeak kalera ez baitira atera musikaren bidez eta plaza ez dute okupatu izan. Batukada mistoetan aspalditik parte hartu izan dut, eta hori rolak dauka. Emakumeek beti instrumentu txikiak hartzen dituzte, zarata gutxi-koak, ahal den gutxiena nabarmenduz oro har. Emakumeekin taldean espazio seguru bat sortu nahi dugu, nahi duten musika instrumentua baliatuta eta zarata aterata.

Irakasleetako bat izango zara. Zuek ere beste taldeetatik zatozte?



Nerea Altxu Parekidetasun saileko teknikaria eta Ainara Sarasketa Alberdi, ikastaroko koordinatzailea.

AINARA SARASKETA

"Berdin dio adinak, oinarri musikala izatea edo ez, zerotik hasiko gara. Guretzat garrantzitsuena, gogoia duten emakume guztiak parte hartzea da"

Bi batukada taldeetan egon naiz. Bi urtez egon nintzen Donostiako batukada talde batean. Eta gero lagun batekin Azkoitian sortu genuen talde bat. Ni hangoa naiz, eta hor 9 bat urtez egon nintzen. Arantxa Vicedo, ikastaroko beste irakaslea, Donostiako Taupada taldean 10-11 urtez egon da jotzen.

Zer aurkitu izan dute emakumeek herrietan osatu izan dituzten batukada feministetan?

Arrasaten eta Eibarren hasi ginen, eta gero Arrasaten, orain Oñatin gaude, Abadiñon, Durangon eta Donostian. Otsailean Zarautzen hasiko gara eta Usurbilen laster. Esperientzia oso onak izan dira, parte hartze aldetik. Batukadaren bidez, jende askori feminismoa gerturatzeko balio izan dio. Gauza piloa ikasi dute, jardunaldi-tara joan izan dira. Jende askok adierazi dit, ikuspegi aldaketa eragin diola.

Bide berriak irekitzeko aukera

baita?

Eta zu sentitzea gai zarezala sortzeko, gidatzeko... Hasieran batukada taldea guk gidatzen dugu, baina gure dinamikak emakumeak gerora gidari izateko bideratuak daude; beraiek sorkuntza lantzeko, beraien erritmoak sortzeko... Dinamikak egiten ditugu baita, elkar entzuteko, elkar zaintzeko. Hasieratik landuko dugu saioetara nola gatozen, alor pertsonala zainduko dugu.

Batukada saio batetik haratago doa ikastaroa?

Oinarri ezberdineko jendea dator. Oso feminista militanteak badakiena zertara datorren, edota inondik inora alor hau landu ez duena, nahiz barne feminista izan. Erlaxatzeko dinamika asko egiten ditugu, elkar konektatzeko. Normalean saioko lehen ordu erdian, musika instrumenturik ez dugu ukitzen. Elkarrekin egoteko tarteak izaten da, elkarri nola gauden esateko, hitz egin behar bada hitz egiteko. Tarte batzuk hartzen ditugu, feminismoaz edo ditugun kezkez hitz egiteko.

Talde kideen arteko loturak lantzen dituzue beraz.

Gure helburua, gero talde hori autonomo bilakatzea da. Gehienez bi urtetarako bi ikastaro oso planteatzen ditugu herri bakoitzean, eta gero jada autonomia beraiantzat. Horrez gain, azken bi urteotan batu-

kada sare feminista sortzen ari gara. Sortu diren taldeetako kideen emailen zerrenda dugu. Nonbaiten emandiren bat eskaintzeko eskaera bat baldin badugu, sare horretan zabalitzen dugu eta herri desberdinetako kideak biltzen gara. Iaz Oñatin adibidez, 36 emakume bildu ziren batukada jotzen; donostiarrak, azpeitiarrak, durangarrak, arrasatearrak, durangarrak...

Animatu herriko emakumeak ikastarora...

Beldurrik ez izateko, oso ondo pasako dugula. Berdin dio adinak, oinarri musikala izatea edo ez, zerotik hasiko gara. Guretzat garrantzitsuena, gogoia duten emakume guztiak parte hartzea da. Talde askotan esan digute, ikastaro hau ez balitz, inondik inora ez zirela bilduko.

Ikastaroa euskaraz izango da. Norbaitek hizkuntzarekin zailtasunen bat izango badu, arazorik ez dezala izan izena emateko.

"Garapen pertsonala eta ahalduzkoa", ikastaro berri bat martxan

Urtarrilaren 9an hasi zen eta martxoaren 27ra arte luzatuko da emakumeentzako ahalduzko ikastaro berri hau. Saioak ostegunero izango dira, arratsaldean, 17:00-19:00 artean, bake epaitegi atzeko yoga lokalean. Pepa Bojo psikologoak gidatuko ditu. "Ikastaro honen helburua autoezagutzan eta garapen pertsonalean sakontzea da eta bide batez, emakumeon ahalduzkoa eta harreman osasuntsuak sustatzea", berri eman dute, ekimena antolatu duten Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailetik. Ikastaroa doakoa izango da. Izena emateko:

■ parekidetasuna@usurbil.net helbidera idatzi.

■ 943 377 110 telefono zenbakira deitu.

“Gure helburua, publikoa euskarazko

Urteberriari ongi etorria emateko hamabi mahats aleak berarekin irensteko aukera izan genuen. Inauguratu berri den txotx denboraldi berri honetako lehen tragoarekin nola gozatzen duen ere ikusi dugu. Eta gabonetan jan edan aldetik gehiegikeriak egin dituzuenontzako ere, errezeta ezin hobea du; “gerribuelt metodoa”. “Gerribuelt” esan eta jakingo duzue zeinetaz ari garen. Hara eta hona dabil azken aldian, Bordatxotik Miramonera, Miramonetik Bordatxora. Gustura, suertatu zaion aukeraz gozatzeko. Eta argi du; ondo pasatze-ari uzten dion unetik, kamera eta fokuetatik aldenduko da. Bitartean, pozik da ogibide berri duen telebistako kolaboratzaile gisa izan duen harrerarekin. Beste hainbat hedabideek eskatu dioten moduan, usurbildarra izanik, NOAUA!ri ezin ba ezetz esan. Kontrako Eztarriko Paulinok, Bordatxokoa usurbildarrontzat, honako elkarrizketa eskaini digu.

2014a zurekin hasi dute askok. Zer moduzko esperientzia izan da ETBko urte zaharretako saioan parte hartzea?

Paulino Ibargoien. Oso berezia. Saio motza, baina ederra eta barregarria izan zen. Esperientzia aldetik izugarria. Ikusita irailetik hasi ginela eta izan duen arrakasta, eta pertsonaia usurbildarra izatea, horrek poz handia eman dit. Eta zer gainera eta urte berriari ongi etorria ematea. Esketxak prestatu genituen gauerdia aurreko saiorako eta ondorenerako. Oso polita izan zen. Lan asko egin dugu. Esketx desberdinak izan dira: Sarduirekin, bakarrik... Paulino eta Usurbil lotzea ederra izan da.

Atzeko lan handia eskatzen du halako saio batek?

P. I. Lan handia egin dute bai



ETB1eko ‘Kontrako ezterrria’ saioko izarra bilakatu da Paulino.

PAULINO IBARGOEN

“Lan handia egin dute bai Euzkitzek, Alkainek, Ikerrek, Jonak... Neure lana da errazena!”

Euzkitzek, Alkainek, Ikerrek, Jonak... Une oro daude kontrolatzen zer egin, nola egin. Lan asko dago atzetik. Neure lana da errazena. Joan eta nola pertsonaia niri jarri didaten... Politia izan da Paulino usurbildarrarena egitea.

Nola jaso zenuen Kontrako Eztarrarian parte hartzeko gonbita?

P. I. Udan izan zen. Alkainen anai bat bizi da Usurbilen eta berak komentatu zidan, anaiak nirekin hitz egin nahi zuela saio berri baterako eta ia telefono zenbakia emango nion. Abuztu amaieran, animatuko ote nintzen esan zidaten. Saioa zeri buruzkoa zen jakin nahi nuen.

Baiezkoa bat batean ez zenuen eman orduan?

P. I. Baiezkoa eman bai, baina jakin nahi nuen zeri buruzko saioa zen. Eurek ez zekiten oso argi zertaz zihoan kontua. Hiru egun gaizki pasa nituen. Emaztearekin hitz egin nuen. Sartzekotan ondo pasatzera joan, bestela ez joan esan zidan. Horrek eman zidan indar handia. Horregatik dena ematera joaten naiz. Berdin zait zer jarri behar den, zer kendu, zer egin...

Politena da, ni joaten naizenez, edozein unetan grabatzen ari direla, agurtzera sartu eta, haienezako energia naiz. Oso pozik daude. Eguneroko ordu erdiko saio bat egitea oso zaila da. Minuturo, hau jarri edo bestea kendu erabaki beharra izaten da.

Nolakoa da, ikus-entzuleek ikusten ez duten Kontrako Eztarrarian beste aldea?

P. I. Eguneroko ordu erdiko saio bat lotu behar dute. Oso konplexua da, nola asmatu, zer egunetan zer eskaini... Astelehenean agertzeko hasi nintzen grabatzen. Gerora egunez aldatzen joan ziren, audientzien gorabeherengatik.

“Hor lan asko dago atzetik”

NOAUA! Nola barneratu duzu gauetik goizera telebistan eta sare sozialetan izan duzun arrakasta?

Paulino Ibargoien. Harrigarria izan da. Ni atera nintzen lehen saio bideoa, Facebooken zintzilikatu eta 8000 aldiz jaitsi zuten lehen egunetan. Youtubean, 2600 aldiz baino gehiago. WhatsAppen ere mugimendu handia dago. Saioan agertzeak Gaztea irrati katetik eta beste leku batzuetatik deitzea ekarri du. Politia da, eguneroko jendea, ze ondo, ze barre egingen duten, eta halako saio baten beharra zegoela entzutea. Hori izugarria da, ordaindu ezina.

Zer esan, neurri handi batean saioaren arrakasta zurea dela diotenei?

P. I. Ez nago ados. Euzkitze, Alkain, Jon, Iker daude eta kameran atzean jende piloa, ez dago Paulino bakarrik. Hor lan asko dago atzetik. Ikusi beharra dago talde kideak zer profesionalak diren. Neure kasuan, norbait naturala bilatzen zuten eta asmatu egin dute pertsonaiarekin.



“Norbait naturala bilatzen zuten. Asmatu egin dute pertsonaiarekin”.

telebista katera erakartzea da”

NOAUA! Publikoa zorrotza da hedabideak epaitzerakoa. Kontrako eztarria egoki epaitu dute ikus entzuleek?

Paulino Ibargoien. Pentsatu zer egoeratan hasi garen, ETB zer egoeretan zegoen. Gainera krisia egokitu zaigu. Jendea nazkatuta dago betiko saioez, ordu erdiko saio hau ikusi eta barre egin nahi du. Askotan galdetzen didate, gure saioa ikustean zer sentsazio izaten dudana. Nik neure buruarekin barre egiten dut.

Nola ikusten zara?

P. I. Familiarekin ikusten dut, edo bestela lana egokitzen zaidanean tabernan, barre handia egiten dut. Txiskolan ateratzen ginen garaian, neure burua ikusteak lotsa ematen zidan. Eta orain, neure triparekin, barre handia egiten dut. Oso seguru noalako izango da, berdin zait. Azkenean bizitza honetan badakigu zer dagoen; bizi, barre egin eta aprobetxatu behar dugula. Aprobetxatzeko une hau egokitu zait telebistan, bukatzen denean hor geldituko da. Gozaten ari naizen bitartean jarraituko dut, gozatzeari uzten diodan unean utzi egingo dut.



“Bizitza honetan badakigu zer dagoen: bizi, barre egin eta aprobetxatu egin behar dugula momentua”.

Kalean zer esaten dizute?

P. I. Herritik ez naiz asko atarra. Hernanira joatean adibidez, komentatzen du jendeak Kontrako Eztarrikoa naizela. Takoiekin eta ibiltzeagatik, jendeak galdetzen dit ia nola moldatzen naizen. Nik zer dakit bat erantzuten diet, sekula ez ditut erabili eta.

Gerribuelten metodoa nola sortu zenuten?

P. I. Alkainek esaten zidan ia

PAULINO IBARGOEN

“Izadi Azkonobietak aerobik klase batzuk eman zizkidan, moldatzeko moduan”

aerobikeko irakaslearena zergatik ez genuen egiten. Izadi Azkonobietak herritarrak klase batzuk eman zizkidan, moldatzeko moduan. Lehenbizi tripa bistan, mugimendu batzuk ezker

eskuin. Azkenik, beroketekin, ziraunaren mugimendua hortik atera zen. Bonba hutsa izan da.

Agerian geratu da, arintasun izugarria duzula?

P. I. Berezkoa dut. Karate egin izan dut. Baserri kanpoan txiri bueltak egiten, “pino” egiten zenbat apustu egin ditudan inork ez daki. Denborarekin maila galtzen den arren, oraindik moldatzen naiz. Kirol pixka bat beti egiten dut.

“Askotan saio politenak inprobisatuta atera dira”

NOAUA! Eguberrien ostean berriz telebistan. Oraingoz noiz arte ikusiko zaitugu?

P. I. Agian bizpahirutan aterako naiz astero. Aste Santu bitarte behintzat hor egongo gara. Audienciaziak du zeresan handia, noiz arte egongo garen. Lan asko dugu egiteke. Adi, berrikuntzak datoz. Gure helburua, publikoa euskarazko telebista katera erakartzea da.

Nola uztartzen dituzu telebistako eta tabernako lanak?

P. I. Hor moldatzen naiz. Goizean

Miramонера joan beharra badut, arratsaldeko txandakoekin ordu-tegiz aldatu edo langileren bat ekarrita. Moldatzen gara. Gozaten dugun bitartean...

Zer giro duzue lan taldean?

P. I. Oso ona. Lankideak zer moduz diren galdetzen dute. Xabierrenagatik adibidez. Euzkitze pertsona harrigarria iruditzen zait. Seguratasuna ematen duen pertsona bat da. Pieza klabea saioan.

Kontrako eztarria grabatzen eta

Kontrako eztarria ikustearren artean zer desberdintasun sumatzen duzu?

P. I. Lankideak grabatzen ari direnean eta ni kanpoan banago, izugarria da. Ze onak diren. Gero etxetik ikusi, eta barre egiten dut. Ze zaila den barre eginaraztea. Kameraren aurrean jartzean, burutik gauza asko pasatzen zaizkit: hau edo beste egin nezakeela... Baina grabatzeko momentua da. Momentu hartan, bakoitzaren abileziak dira garrantzitsuak. Gidoiarekin joaten dira haiek, ni

gabe eta haiek ezustekoak hartzen dituzte. Nirea inprobisazioa da, beraiek ere hala nahi izaten dute. Askotan saio politenak, inprobisatuta atera dira.

Planteatu al duzu telebista munduan beste zerbait egitea?

P. I. Egunean egunekoak, datorrenari begira egon gabe. Gustura nagoen bitartean joan behar dudana lekura joango naiz. Zorte pozgarria da hau. Aprobetxatu egingo dut, gozaten ari naizen unean. Bukatzean bukatu eta kito.

2013a, "Zero Zabor bidean urrats



Argazkia abenduaren azken igandekoa da, "Nik ere gelditu dut" ospakizunekoa.

Agurtu berri dugun azken urteko balantzea egin du Gipuzkoa Zero Zabor herri mugimenduak. Balantze positiboa, ez bairik gabe. GZZ-tik diotenez, "2013 urtea, Gipuzkoan, Zero Zabor bidean urrats handiak egin diren urtea izan dela ikus dezakegu".

Hamarkada luze batez azpiegitura kutsakor baten mehatxupean bizi ostean, azaroaren 13an Gipuzkoako Hondakin Kontsultazioak eta enpresa taldeak Zubietako errauste planta behin betiko bertan behera utzi zuen akordio historikoak baldintzaturiko urtea izan da joan berri zaiguna. GZZ-tik dioten moduan, "errausketaren arotik zero zabor arora" pasa garen

GIPIZKOA ZERO ZABOR

"Oztopoak jarri dizkigute eta oztopoak jarriko dizkigute, baina aurrera egin dugu eta aurrera egingo dugu"

urtea. "Errausketaren eta zaborren aroari amaiera eman zaio Gipuzkoan, eta zero zabor aroan baneratzeko hasi gara, hondakinak arazo eta kutsadura iturri bihurtu beharrean, baliabide bezala kudeatzeko aroan", azaldu dute.

"Ikaragarri aurreratu dugu"

Hala diote bilgunetik, zero zabor eredu eraikitze hastepenetan

gaudela, oraindik "hobekuntza tarte handia dago". Abenduaren 29an Usurbilen antolatu zuten "Nik ere erraustegia gelditu dut" jaialdian zioten moduan, errauste planta proiektua bertan behera utzita, "garaipen berriak ditugu zain": Gipuzkoa zero zabor lurralde bihurtzea.

Norabide horretan kokatuko dira hain zuzen, estreinatu berri dugun 2014 honetarako GZZ-koek finkatuak dituzten erronkak. "Zero Zabor bidean lortzeko daukagunak asko dira. Zabortegi kutsakorrek ixtea, hondakinak tratatzeko azpiegitura berriak eraikitzea, errefusari toxikoak ez diren tratamenduak ematea, gaikako bilketa eraginkorra herri guztietara zabaltzea...", GZZ-koen esanetan.

Helburuok lortzeko bidea, ez dela erraza izango diote. Baina 2013an eman diren urrats historikoen bultzadaz, zero zabor bidean sakontzen jarraitzeko asmoa dute. "Oztopoak jarri dizkigute eta oztopoak jarriko dizkigute, zenbaitzuk, herritarren osasuna eta ingurumenaz oso beselako interesak lehenesten dituztelako, baina aurrera egin dugu eta aurrera egingo dugu, Gipuzkoa Zero Zabor lurralde izango dela erabaki baitugu. Gure xedea lortuko badugu, oztopatzaileek zer egiten duten begira egotea baino, gure bidean aurrera jarraitzea da garrantzitsua. Segi dezagun lanean bada. 2013 urteko lorpenak aurrera egiteko pizgarri apartak dira", diote.

Kutsatzeko eskubidea, inork gutxik defendatua

Pizgarri horien artean nabarmentzen dutenez, 2013an zehar pentsaera mailan eman diren aurrerapauso garrantzitsuak daude. "Gipuzkoan, lehen ez bezala, gaur egun inork gutxik defendatzen du publikoki kutsatzeko eskubidea, hondakinekin sudur puntan jartzen zaiguna egiteko eskubidea daukagula alegia. Hondakin birziklagarriak gaika

bildu behar direla diote eragile ia guzti-guztiek", GZZ-tik gogorarazten dutenez.

Bilketa sistemari dagokionez, bost edukiontzien sistemaren porrota agerian utzi duen urtea agurtu dugula diote: "Bilketa sistemen arteko eztabaidan ere urratsak egin dira. 5 edukiontziko sistemak "birziklatzeko" balio ez duela gero eta agerikoagoa da, bil-

keta datuek nabarmen uzten baitute hori. Emaitza ziurrak ematen dituen atez ateko bilketa ezarri nahi ez bada, beste zer edo zer asmatu beharra dagoela entzutera pasa gara 2013an zehar sistema honen aurkakoen ahotik. Beste sistema horiek definitu eta horien balioa frogatzeko badago ere, porrot ziurraren bidea zein den garbi edukitzea aurrerapen handia da".

Pertzepzio aldaketa

Hau gutxi ez eta, pertzepzio aldaketa bat eman dela ere sumatzen dute GZZ-tik: "Atez ateko bilketa eraginkorra zeukaten herriak zikinkeriz eta arratoiz beteta zeudela ziotenek, orain, pertzepzio hori "subjektiboa" dela esatera pasa behar izan dute, Izan ere, errealitatea handiegia egin zaie gezur-rekin estaltzen segitu ahal izateko".

handiak egin diren urtea"



Modu ludikoan zabaldu da gaikako bilketaren mezua herriz herri. 5etik 27ra hazi da 2013an gaikako sistema.

Hondakinen kudeaketari loturiko plangintzan jasoa dagoen moduan, tratamendu mekaniko-biologikorako eta konpostatze planta bana eraiki asmo ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan. Baita bi konpostatze planta ere, bat Deba Goienan eta bestea Sasietan Mankomunitatean. Debagoienakoa Epelen, Bergaran kokatuko dena eraikitzeko lanak, gutxi barru abiatuko dituzte, Iñaki Errazkin ingurumen diputatuak aurreko astean Gipuzkoako Batzar Nagusietan adierazi zuenez. Epeleko planta, egun Gipuzkoak sortzen duen organiko guztia konpostatzeko gai izango dela iragarri zuen Errazkinek.

Bilera erronda, adostasunera heltzeko

Enpresekin adosturiko akordio batekin, Zubietako errauste planta proiektua behin betiko bertan behera gertatu zela berri eman zutenean, besteak beste, lehen hilabete hauetarako lan ildoak zeintzuk izango ziren irar-

ETORKIZUN HURBILEAN

Aldundiak bi urte barrurako finkatua duen helburua; 2016an, Gipuzkoako hondakinen %60 birziklatzea

garri zuen Foru Aldundiak. Bestek beste, eragile politikoekin elkarriketa erronda bat egingo zutela, Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketaren inguruan ahalik eta adostasun maila handiena biltzeko. Hain zuzen, Errazkinek Gipuzkoako Batzar Nagusietan adostasunerako deia egin zuen aurreko astean.

Eta datozen asteotarako bi hitzordu iragarri zituen; batetik, urtarrila amaieran, hondakinen alorreko Aholku Batzordea deituko duela Aldundiak. Batzorde hau osatu berria dute jada. Eta lehenago, alderdi politikoekin elkartuko direla.

Errazkinek esanetan, "helburua alderdi politikoekin eta eragileekin ir-

tzia biltzea eta adostasuna bilatzea da, Gipuzkoak behar dituen azpiegiturak izan ditzan hondakinak modu arrazionalen eta iraunkorren kudeatzeko". Eta Aldundiak bi urte barrurako finkatua duen helburua betetzeko; 2016an, Gipuzkoako hondakinen %60 birziklatzera heltzeko.

Azpeitiako Udala, erraustegia eraikitzearen aurka bat eginik

Errazkinek Gipuzkoako Batzar Nagusietan agerraldia egin zuen egun berean, ezohiko mozioa onartu zen Azpeitiko Udalean. Zubietako erraustegia ez eraikitzearekin bat egiten zuen tesua onartu zen Bildu eta EAJ-PNVren aldeko bozkekin, eta Hamaikabaten abstentzioarekin. Mozioak dienez, "Azpeitiko herritarrak ez dugu edozein motatako konponbidea onartzen hondakinen kudeaketan, eta guretzako nahi ez dugun kaltea ez dugu nahi Zubietako herritarrentzako". Bide batez, Lapatzeko zabortegia ixteko beharrezkoak diren azpiegiturak adosteko eskaera egin dute.

Gipuzkoako udalen heren bat hondakinen %70etik gora gaika biltzen du

2013ko lorpenak datuekin ere islatu nahi izan du Gipuzkoa Zero Zaborrek:

- 5etik 27ra hazi da, hondakinen %70a baino gehiago gaika biltzen duten udalerrri kopurua.
- Gipuzkoak 89 udalerrri ditu: beraz, hirutik batek hondakinen %70etik gora gaika biltzen du (askok %80tik gora).
- Mankomunitateetan; Sasietak hondakinen erdia baino gehiago gaika biltzen du.
- Organiko guztia herrian bertan konpostatzen duten udalerrri kopurua batetik (Orendain) zortzira igo da.
- Hondakin organikoa konpostatzen duten udalerrri kopurua %50 hazi da.
- Auzokonpostatzea: 8 herritik 39ra zabaldu da. Ia 5 aldiz biderkatu da. Auzokonpostatzaile kopurua 6 aldiz hazi da.



Auzokonpostatzea 8 herritik 39ra zabaldu da 2013an.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

TAXI 24h
Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66
943 36 21 78

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

“Zumeta”, Euskararen Egunean



DBHko ikasleek Zumetaren inguruko dokumentala ikusi zuten Euskararen Egunean.

Urtero bezala, abenduaren 3an, Euskararen Eguna ospatu genuen ikastolan. Egun horretan ez genuen klaserik eman eta ekintza ezberdinak burutu genituen. Hasteko, goizean ikastolara sartu ginenean, girotzeko euskal kantuak jarri zituzten bozgorailuetan. Giro alai zegoen ikastolan, ohikoa ez den bezala.

Ondoren, Sutegira jaitsi ginen Zumetaren dokumental bat ikustera. Jose Luis Zumetaren alabak eta beste hainbat pertsonak egin zuten pelikula bat, aitaren bizitza eta margolanen inguruan. Oso interesgarria iruditu zitzaigun denoi, eta duela sei urte inguruko grabazio batzuk agertu ziren.

Bertan, DBH3ko lau ikasle agertzen ziren margotzen eta Zumetari buruz

hitz egiten. Honen bilobak ere agertzen ziren dokumentalean. Dokumentala bukatzean ikastolara igo ginen berriz, eta bertan ikastola apaintzen hasi ginen. Paper handi batzuk zintzilikatu genituen leihoetatik, euskal ikurrez eta kolorez beteta. Oso polita geratu zen eraikina.

Udarregiko DBHko ikasleak

Eta arratsaldean, bertso saio bereziaz gozatzeko aukera izan zuten, Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendirekin

Arratsaldean, festari jarraipena emateko, bertso saio berezi bat antolatu zuten irakasleek eta DBH4koek aurkeztu zuten. Bi bertsolari etorri ziren: Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi.

Hasieran, DBH4ko ikasle batzuek gaiak jarri zizkieten bi bertsolariei eta beraiek bertsoak kantatu zituzten. Ondoren, joko deigarri bat antolatu zuten: “Nor da nor?”-a. Oso ondo pasa

genuen joko hori egin zutenean, dibertigarria izan zelako.

Gero, beste joko bat ere antolatu zuten: irakasle batzuk atera zituzten eta bertsolariek, bertsoak kantatuz, irakasle bakoitzak zer arlo ematen zuten asmatu behar zuten.

Azkenik, bertsolariak ikasleengan jaitsi ziren eta bertso jarraituak kantatu zizkien ikasle batzuei. Giro ederra egon zen.



Bertso saioaren irudia.

I. Jon Uribe Pala Txapelketan, izena ematea

Urtarrilaren 21era arte eman liteke izena Aitzagan. Prezioa, 5 euro. Urtarrila amaieran edo otsaila hasieran abiatuko da, neska mutileri zuzenduriko txapelketa. Partidak Txokoaldeko frontoian jokatuko dira, banaka. Jon Uriberen izena daraman ekimena Akerra Gaztetxeak antolatu du.

Tximeleta taldeko kideen emanaldia

Urtarrilaren 25ean, Tximeleta taldeak aurrelehiaketa antolatu du, Elorsoro kiroldegian, Oiartzunen. Goizeko 11:00etan hasi eta eguerdiko 12:00etan bukatuko da. Ikastetxe ezberdinek hartuko dute parte, tartean Udarregi ikastolak. Eta hauekin batera, Tximeletako jubenilak eta seniorrak.

Iñaki Etxebarria, sagardotegira afaltzera Usurbil KE-ren eskutik

Sari hauxe egokitu zaió Iñaki Etxebarria herritarrari, Usurbil Kirol Elkarteak antolaturiko eskubaloiko errifa zozketan parte hartzeagatik. 8.315 zenbakidun txartelaren jabea, Urdaira sagardotegira joango da afaltzera.



8.315 zenbakiari esker irabazi du Usurbil KE-k zozketaturiko afaria.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ANTXETA
taberna-jatetxea
eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Urtarrilaren 26ko BTT trabesiarako izen ematea irekita



Izena emateko inskripzio orrira, QR kode horren bitartez iritsiko zara.

Aurre inskripzioa egiteko bi bide dituzue; Kirolprobak atarian sartuta edota Irisasi BTT bilguneak Facebooken duen orrialde-
ra joanda. Web orri baterako zein besterako lotu-
rak hemen: www.kirolprobak.com web orrian edo
Facebook helbidean [facebook.com/IrisasiBtt2013](https://www.facebook.com/IrisasiBtt2013).
Izen emateko orriak ere Andatzako web gunean
eskura daitezke.

Urtarrilaren 26an, goizeko 9:30ean hasiko da
Irisasi BTT 2014 "Hotzak akabatzen" proba. Par-
taideek, 30 eta 40 kilometro luzeradun ibilbide-

en artean aukeratu ahal izango dute.

Izen emateko epea zabalik egongo da urtarril-
laren 23ra arte. 12 euro ordaindu beharko dituz-
te federatuek, 15 federatu gabe daudenek. Zer-
txobait gehiago proba egunean bertan apunta-
tzen direnek; 15 euro federatuek, 20 euro fede-
ratu gabekoek. Hori bai, guztientzat Craft kami-
seta opari. Eta zozketa ugari parte hartzaileen
arte. Asistentzia edota jan-edan beroa izango
dute bidean, hamaiketako ederra helmugan.

Datu gehiago: www.andatzamendizale.info

Itoitz Rodriguez, Gipuzkoako jubenil mailako txapelkun berria

Juan den ostiralean, sekulako balentria egin
zuen Itoitz Rodriguezek. Anoetako Belodro-
moan izan zen. Jubenil mailako Gipuzkoako
txapelketako finala irabazi zuen, 400 metroan
urrezko domina erdietsiz. Bere seriea erraz ira-
bazi zuen baina hori baino deigarriagoa izan zen
egin zuen denbora. Gure berriemakak adierazi
digunez, "sorpresa handia hartu genuen, epaile-
ek egindako denbora ofiziala adierazi zutenean:
49,69! Marka honekin Gipuzkoako jubenil mai-
lako errekorra gainditu du, baina ez hori soilik;
1989tik Josean Gay atletaren junior mailako erre-
korra ere bi zentesimatan hobetu du".

Itoitz Rodriguezen hurrengo erronka Euskadiko



Itoitz Rodriguez, artxiboko irudian.

Txapelketa izango da. Eta begibistan du martxo-
ren lehen asteburuan Valentzian jokatu den Espai-
niako indoor txapelketa.

Sarai Lizaso arraunlaria, "El conquistador" telebista saioan

Abentura berri batean
murgildu da Sarai Liza-
so Mitxelena usurbil-
darra. Asteburuaz
geroztik ETB-ko "El
Conquistador" saioan
ikus dezakegu, 20 urte-
ko arraunlaria. 2014ko
edizioko lehiakide gaz-
teena dugu. Saioa igandero 22:00etan, ETB-
2 katean.



Futbola Haranen

Urtarrilak 18, larunbata

10:00 Alebinak: Udarregi 5B-Urnieta 5B
10:00 Alebinak: Udarregi 6A-Landaberri 6B
11:30 Infantilak: Usurbil FT-Ostadar
15:30 Neskak: Usurbil FT-Antigua Luberri
17:30 Jubenilak: Usurbil FT-Beti Gazte

Zumaia-Orio, Andatzaren urteko lehen irteera

Otsailaren 9rako antolatu dute irteera. Huru
ordu eta erdi inguruan osatzeko moduko 15
kilometroko ibilbidea proposatzen diete men-
dizaleei. www.andatzamendizale.info

Eskubaloia kiroldegian

Urtarrilak 18, larunbata

9:30 Alebin neskek:
Udarregi 5 C-Udarregi 5 A
10:30 Infantil neskek.
Udarregi C-Udarregi B
11:30 Infantil neskek:
Udarregi A-Aloña Mendi D
13:00 Senior mutilak, 1. T:
Usurbil K.E.-Aloña Mendi KE
16:00 Kadete neskek: Usurbil KE-Bera Bera
17:30 Jubenil neskek: Usurbil KE-Bera Bera
19:15 Senior neskek: Usurbil KE-Bera Bera

Urnietako udal kiroldegian:

17:30 Jubenil mutilak:
Usurbil K.E.-Eibar Eskubaloia

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitate@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

WHEEL WADENIA

Talde murriztuak eta
pertsonalizatuak

- Lehen eta Bigarren hezkuntza
- Batxilergoa · Selektibitatea
- Lanbide heziketa
- Ikasketak teknikoak · Hizkuntzak

6 2 9 9 4 4 6 9 0

Galtzaragaña 1, behea USURBIL

**ESKAIOLA eta
PLADUR**

Joxean Elorza
699426042
USURBIL

irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urtetako umeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrek emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskalduna, haurrak zaindu edota klase partikularrek emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketara lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldaren lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egunez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko,

ostalaritzarako eta garbiketaregiteko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Estetizien bat behar da Usurbilen lan egiteko, tel 943 37 19 71

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zainitzeko eta etxeko lanak egiteko. Goizez, astelehenetik ostiralera. 635742503

Emakume bat zaindu eta etxeko lanak egingo dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (M^a Angeles)

BESTELAKOAK

Donostiako Jesuitinas Kastola (Ayte), beren haurrak dituztenen gurasoekin hitz egin nahi genuke informazio pixka bat jasotzeko. Harremanetarako: 678708095 (Beñat)

Mahaspildegiekin batera bazkide plaza bat salgai. Interesa baduzu deitu: 637 413 691 Juanjo

Valenciako mandarina ekologikoak salgai. 1€ kilo. Bitartekaririk gabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda inguruan. Pottolo xamarra dago. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baseri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez erosi. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Behor bat salgai. Raid edo ibilaldietarako oso egokia. Izaera ezin hobea. Fisiko harrigarria. 620011889

Baseri bat eskaintzen da konpondu eta negozio bat jartzeko Lasarte inguruan. Tel. 626 728 463.

Jostekobi makina salgai. 943363201.

Indukziozko sua salgai. Bi urte ditu

eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehiagoko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 talla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrunak salgai, artoarekin batera egingo da. 637974994

Telebista salgai, Sony Egoera onean, 80 euro. 653 014518

Pedalik gabeko bizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbatean. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Aginagako artoa salgai. Telefonoa: 687706363

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo inbaxurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoak. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebista, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatean: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Aberé-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta. .	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak urtarrilak 16-urtarrilak 26

Osteguna 16	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Ostirala 17	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Larunbata 18	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Igandea 19	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Astelehena 20	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Astearte 21	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 22	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte

Osteguna 23	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Ostirala 24	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Larunbata 25	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Igandea 26	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

Agenda urtarrila

17 ostirala

■ **Danborrada Udarregi ikastolan.** 15:45-16:15 HHkoen saioa, Agerialdeko frontoian. 16:00-16:30 LHko ikasleen danborrada saioa Ikastolako plaza borobilean.

18 larunbata

■ **"Gure esku dago" taldeak deituriko bilera.** 10:00etan Potxoenean.

21 asteartea

■ **Kantu ikastaroaren saio berri bat.** 18:30etatik 19:30etara, Udarregi ikastolako kantu gelan. Izen ematea, bertan. Prezioa: 10 euro.

San Sebastianen ohorez, danbor jolez beteko da ikastola

Udarregi Ikastolatik gogorarazia diete ikasleei, ostiral honetan, urtarrilaren 17an, galtza urdin edo bakeroa, alkandora edo niki zuria eta laukidun lepokoa jantzita etorri behar dutela ikastolara. Danborra joko dute eta bazkalostean. Datorren astelehena San Sebastian eguna dugu. Bezpera, igandez egokitu denez, danbor joleen desfile eta saioa bi egun aurreratu dute ikastolakoek. Ostiral bazkaloste honetara:

- 15:45-16:15 Haur Hezkuntzako saioa, Agerialdeko frontoian.
- 16:00-16:30 Lehen Hezkuntzako danborrada saioa, ikastolako plaza borobilean.



San Sebastian eguneko danborrada ostiral honetan egingo dute Udarregin.

Matrikulazio kanpaina

Otsailaren 3tik 14ra luzatuko da 2014-15 ikasturterako matrikulazio kanpaina. Izena emateko hitzordua eskatu behar da, Udarregiko idazkari-tzara deituta: 943 361 216. Argibide gehiago tele-

fono zenbaki berean jaso ahal izango dira. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Udalak egindako bizikidetzaz ziurtagiria, familia-liburuaren kopia, guraso NANaren kopia, matrikulatu beharreko ikaslearen Gizarte Segurantzako txartelaren kopia eta kontu korrante baten 20 digituak.

Kultura Aholku Batzordea, urtarrilaren 23an

Diru-laguntzen deialdi berria eta kulturako web orria izango dituzte hizpide nagusi, kultur eragile eta taldeei zuzendurik egongo den bilkura honetan. Hitzordua urtarrilaren 23rako finkatu dute, arratsaldeko 18:30etan Potxoenean.



Mus txapelketa, Benta tabernan

Ostiral honetan, urtarrilaren 17an, gaueko 22:00etan hasita Benta tabernan. Izen ematea, 20 euro. Lehen saria: 4 kilo txuleta, 2 langostino kaxa, 2 botila xanpain.
2. saria. 3 kilo txuleta eta 2 botila ardo.
3. saria. 3 kilo saiheski eta 2 botila ardo.
4. saria. 2 kilo saiheski eta 2 botila ardo.

Datozenak

Datorren astean, Kantu Taldearen saio berria

Usurbilgo Euskal Kantu Taldea berriz ere martxan. Eguberrietako etenaldiaren ondoren, berriz ere kaleak girotzen hasteko prest dira. Urtarrilaren 25ean, 19:00etatik aurrera Mikel Laboa plazatik abiatuko dira kantu betean. Gogoan izan kantu ikastaro berria ere jarri dutela martxan. Susi Elosegui Udarregi ikastolako irakaslea izango da gidaria beste behin ere. Asteartetan, 18:30etatik 19:30etara Udarregi ikastolan. Izen ematea Kantu gelan. Prezioa: 10 euro.



Urtarrilaren 25ean aterako dira kantuan.

DYaren ikastaroa

Urtarrilaren 27an, oinarrizko bihotz-birikien suspertzea eta kanpoko desfibriladore automatikoen erabilerari buruzko ikastaro bat hasiko da Usurbilen, edonori irekia. 18:30etatik 21:00etara, hilaren 27an eta 28an DYako egoitzan (90 euro, matrikula). Izena emateko: 943 46 46 22.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



Zergatik ordaindu hainbeste
urteroko kotxea, motorra,
furgoneta edo kamioiaren
azterketan edo olio aldaketan?

Hiru erataria egin dezakezu:
zuk eginda, zuk gurekin ikasiz egin edo guk eginda



Egin zerorrek

BOXEEN ALOKAIRUA

OFERTA!
ESKAINZA!

943 360850



deitu eta eskatu prezioak konpromisorik gabe 943 360 850, boxes@euromikels.com
N-1 km 441. Billabona www.boxeseuromikels.com



Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala
orain ere noaua.com web orrian



Etxebizitzak, garajeak, motorra,
lanpostuak, trukean...
Zure oharra Internet bidez igo
eta kontsulta dezakezu

www.noaua.com



MERKATU TXIKIA



noaua

usurbildarren zerbitzura



URDAIRA

Sagardotegia
astelehenak itxita **Aginaga 943 37 26 91**

OTSUA-ENEA
SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, **HERNANI**

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrietik maiatzak 5era
TXOTX-GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**

iruín
sagardotegia

☎ **943 36 12 29**

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta **USURBIL**
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com

ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.

Oztaran bailara • **URNIETA (Gipuzkoa)** • ☎ **943 55 69 81**

SAIZAR
Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL
Sagardotegiko erreserbak:
943 37 39 95
(Igande gaua eta astelehen eguerdia itxita)
www.sidrassaizar.com

SAGARDOTEGIA
aginaga **Hotela ****

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIKI!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, **USURBIL** www.aginagasagardotegia.com

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

AIALDE BERRI

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea